

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# IKTak eta Konpetentzia Digitalak

Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen  
Irakaskuntzan

Berezko Tituluko Proiektua

---

Soziolinguistika lantzeko material didaktikoa  
Ikerkuntzara hurbilpena

---

Egilea

*Lorea Unamuno Goirienea*

Zuzendaria

*Urtza Garay*

*Mikel Iruskieta*





## Laburpena

---

Txosten hau hamar kapitulutan antolatuta dago: Sarrera, Testuingurua, Helburuak, Metodologia, Trebetasun eta oinarriko kompetentziak, Euskarria eta denboraren egituraketa, Materiala eta Ariketak, Ebaluazioa, Ondorioak eta Bibliografia.

Sortutako material didaktikoak soziolinguistika du gaitzat, soziolinguistika bariazionista, hain zuzen eta online dago eskuragarri

<http://editor.wix.com/html/editor/web/renderer/edit/c144c669-738d-43d8-a5b1-05494e869bf4?metaSiteId=c95cfff5-c205-458b-b108-9281c27d2aaf&editorSessionId=5CA80516-9BE7-4B23-9B99-8D12CF2F4E89>

helbidean. Webgune honetan hamabi ariketa daude, zazpi ataletan banatuta, eta ariketen osagarri diren hamabi *Lan-koaderno*.

Material honen edukiak unibertsitateko ikasleak soziolinguistika bariazionistan trebatzeko, hizkuntzaren ezagutzan sakontzeko eta bakoitzaren errealitate linguistikoaren gaineko gogoeta eragiteko pentsatuta daude.

---

# Gaien aurkibidea

---

Laburpena .....	2
Gaien aurkibidea.....	3
Sarrera .....	4
Testuingurua.....	5
Helburuak .....	6
Metodologia .....	7
Irizpide metodologikoak.....	7
Printzipio metodologikoak.....	8
Sekuentzia didaktikoa.....	9
Ikasketa kooperatiboa.....	9
Trebetasunak eta oinarritzko konpetentziak.....	13
Trebetasunak.....	10
Oinarritzko konpetentziak.....	10
Euskarria eta denboraren egitutaketa .....	13
Euskarria.....	13
Denboraren egituraketa.....	13
Euskarria eta denboraren egitutaketa .....	13
Materiala eta ariketak.....	16
Ebaluazioa .....	22
Ondorioak .....	25
Bibliografia.....	26

# 1. KAPITULUA

---

## Sarrera

---

Errealitate soziolinguistikoa ezagutu eta gogoeta egiteko material didaktikoa sortu da, unibertsitate mailan soziolinguistika lantzeko dagoen hutsunea betetzeko asmoz. Irakaslearen azalpen sakonagoekin gelan lantzeko material didaktikoa da honakoa.

Soziolinguistikari buruz baina, batez ere, Labov (1994, 2001, 2010) eta bere ondorengoek (Trudgill 1983; Fasold 1969; Milroy 1992; Milroy 1980, 1999; Tagliamonte 2012; Eckert 2000) sortutako soziolinguistika bariasionista, *Variationist Sociolinguistics*, ikusmoldea landu nahi da material honen bidez. Helburu nagusia hori bada ere, ikerkuntzaren mundu zabaleko leihatilatxoak zabaldu nahi da metodologiak, baliabide terminologiko eta teknologikoak, datuen analisiak eta nazioarteko eta euskararen gaineko lanak ezagutaraziz, besteak beste, ikasleei urrun gelditzen zaien mundua gerturatuz.

Soziolinguistika bariasionistak hizkuntzan berezkoa eta sistematikoa den aldakortasuna lantzen du, bai ikuspegi diakronikotik, bai sinkronikotik, helburua barne-faktoreak eta kanpo-faktoreak elkartzen dituen mekanismoak nola funtzionatzen duen ulertzea baita (Sankoff 1988).

Unibertsitate-ikasketetan erabilgarri izan daitekeen errealitate soziolinguistikoa ezagutzeko materiala sortu da eta online dago eskuragarri

[http://editor.wix.com/html/editor/web/renderer/edit/c144c669-738d-43d8-a5b1-](http://editor.wix.com/html/editor/web/renderer/edit/c144c669-738d-43d8-a5b1-05494e869bf4?metaSiteId=c95cfff5-c205-458b-b108-9281c27d2aaf&editorSessionId=5CA80516-9BE7-4B23-9B99-8D12CF2F4E89)

[05494e869bf4?metaSiteId=c95cfff5-c205-458b-b108-](http://editor.wix.com/html/editor/web/renderer/edit/c144c669-738d-43d8-a5b1-05494e869bf4?metaSiteId=c95cfff5-c205-458b-b108-9281c27d2aaf&editorSessionId=5CA80516-9BE7-4B23-9B99-8D12CF2F4E89)

[9281c27d2aaf&editorSessionId=5CA80516-9BE7-4B23-9B99-8D12CF2F4E89](http://editor.wix.com/html/editor/web/renderer/edit/c144c669-738d-43d8-a5b1-05494e869bf4?metaSiteId=c95cfff5-c205-458b-b108-9281c27d2aaf&editorSessionId=5CA80516-9BE7-4B23-9B99-8D12CF2F4E89)

helbidean. Atal hauek landu dira bertan: soziolinguistikaren sorrera, soziolinguistika bariasionistara hurbilpena, hizkuntza-aldaketa, bariazio sinkronikoa aztertzekeo metodologiak, ikerketarako baliabide terminologiko eta teknologikoak, datuen analisia eta ikerlari izate bidean.

## 2. KAPITULUA

---

### Testuingurua

---

Soziolinguistika landu nahi duten unibertsitate-mailako ikasleentzat sortutako materiala da.

Aplikagarri izan daiteke soziologian dabilen ikasleentzat, hizkuntzalaritza-ikasketetan diharduten ikasleentzat zein irakasle eskoletakoentzat, guztientzat ibilbide profesionalerako baliabide izan daiteke.

Soziologia arlokoari, besteak beste, herritarren hiztun-izaeraren ezaugarriak ezagutzeko zein hizkuntza-joerak ezagutzeko beharko lituzkeen neurketa soziologikoak egiteko baliabide gisa.

Hizkuntzalaritza ikasketetan diharduten ikasleentzat baliagarri izan daiteke dela hizkuntzaren planifikazio zereginetan jarduteko, dela plan gidariak sortzeko, dela hizkuntza-politikan jarduteko.

Une batean ikasle diren eta hurrengoan irakasle izango direnei hizkuntzaren ezagutza sakona izateak jardun dozentzerako onura ekar diezaieke, eskolako ikasleen hizkuntza joerak, gazteen hizkera propioak, hizkuntza-ekoizpen diferentek interpretatzeko ezagutza eta baliabideen erabileran trebatzeko gaitasuna garatu baitezakete.

## 3. KAPITULUA

---

### Helburuak

---

Material didaktiko honek honako helburu hauek beteko ditu:

- Errealitate soziolinguistikoa ezagutu eta gogoeta egiteko material didaktikoa sortzea.
- Soziolinguistika bariasionista ikusmoldea ezagutzea.
- Ikerketara gerturatzeko bidea zabaltzea.
- Bariazio sinkronikoa aztertzeke metodologiak ezagutzea.
- Ikerketarako baliabide terminologiko eta teknologikoak ezagutzea.
- Mapa, grafika, espektrograma, datuen taula, eta abar autonomoki egiten, sortzen eta interpretatzen ikastea.
- Nazioarte mailako eta euskararen inguruko ikerketa-proiektu eta lanak ezagutzea.
- Ikerketa-lan soziolinguistiko bat diseinatzen eta sortzen ikastea.
- Ikerketa-lan soziolinguistiko bat ustiatzen eta interpretatzen ikastea.
- Ikaskideekin elkar eraginez, hausnartuz eta eztabaidatuz, ahozko ekoizpena lantzea eta ikus-entzunezko baliabideak eta teknologia berriek eskaintzen duten informazioa erabiltzen trebatzea.
- Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagutzea eta interpretatzeko bideak eskaintzea.
- Norberaren eta inguruko errealitate soziolinguistikoa interpretatzeko bideak eskaintzea.

## 4. KAPITULUA

---

### Metodologia

---

Ikasleek paper aktiboa izan dezaten, bide interaktiboa aukeratu da, batez ere, banakako ariketak eta taldekoak eginez eta elkarren arteko eztabaida bultzatuz; honen ondorioz, ikasleak euren ikaste-prozesuaren protagonista izango dira. Irakaslearen rola bitartekariarena izango da, ikasleen parte hartzea ahalbidetzeari ekingo dio eta arreta eta laguntza pertsonalizatua eskainiko ditu.

#### Irizpide metodologikoak

Material hau prestatzerakoan hurrengo irizpide metodologikoak eduki dira kontuan ikasleentzat esperientzia baliagarria eta aberasgarria izan dadin:

- Ikasleen ezagutzak eta esperientziak abiapuntu moduan hartuko dira, beraiek baitira ikaskuntzaren protagonista nagusiak eta horrela jakinaraziko zaie.
- Ikaskuntza praktikotasunera bideratuta egongo da, ikastaldearen parte-hartzea aktiboa eta dinamikoa izan dadin. Horretarako, ikasleen autonomia eta elkarren arteko komunikazioa bultzatuko da; informazioa bilatu eta aztertzea, datuak analizatu eta ustiatzea, hauek interpretatu eta hausnartzea bideratuko da.
- IKTak era esanguratsuan integratzea eta askotariko informazio-iturriak erabiltzea hainbat euskarritan.
- Irakasleak ikaskuntza-prozesuan ikasleei lagunduko die, beti ere beharrezkoa baldin bada. Honen funtzioa ikaskuntza tutorizatzea izango da, hau da, ikaskuntza-prozesuak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea, estimulatzea, laguntzea, ebaluatzea eta bideratzea.



## **Printzipio metodologikoak**

Jarraitu diren printzipio metodologikoak honako hauek dira:

- Bakoizte-printzipioa: banakako zein taldeko lanean oinarrituta bakoitzak dituen kompetentzia potentzialak garatzea bilatzen da. Horretarako, ikasleen interesa eta motibazioa ezinbestekotzat hartuko dira.
- Aktibotasun-printzipioa: ikasleek era independentean ikasten, lan egiten eta erabakiak autonomiaz hartzen ikasteko aukera izango dute.
- Lankidetzako ikaskuntza-printzipioa: ikasle guztiek helburu berdina dute; taldeko lanetan norberaren nahiz taldekideen ikaskuntza eraiki eta aberastuko da.
- Ikasketa esanguratsua: ikasten den materialari esanahia emanaz, ikasleek beraien ezagutza eraikiko dute.
- Sormen printzipioa: sormenari esker, ikasleek gatazkak gainditzeko trebetasuna landu ahala, etorkizuneko eragozpenak eta gatazkak konpontzeko autokonfidantza sendotu dezakete. Ikasleen irudimena eta sormenari lekua uzten zaio, norbere ekoizpenak goraiapatuz eta izaera ezberdineko jardueren bidez.
- Transferentzia-printzipioa: transferentzia positiboa erraztuko da, egindako ikasketa batek ikasketa berri batean duen efektua sortuz.

## **Sekuentzia didaktikoa**

Ikasmaterial hau Heziberri 2020 Plana jarraituz egin da, sekuentzia didaktiko (Dolz & Schneuwly 1997; Larringan & Idiazabal 2012) gisa antolatu da eta lantzen diren jarduera gehientsuenak ikasketa kooperatiboaren (Kagan 1999) bidez gauzatzen dira.

Sekuentzia didaktiko bat ekoizpen erreal batean amaitzen den jarduera multzo harilkatu bat da. Ekoiztu beharreko materiala helburu duela, ikasleak garatuko ditu curriculumak proposatzen dituen kompetentziak, horretarako aukeran jartzen zaizkion gaiak eta jarduerak bidelagun direla. Sekuentzia didaktikoa, beraz, helburu konkretu eta erreal bati erantzuteko jarduera-multzoa da. Sekuentzia didaktikoek ikaste-prozesua esanguratsua izatea bermatu behar dute logikoki nahiz psikologikoki. Hau da, batetik, lantzen diren edukiek lotura logikoak izan behar dituzte, eta bestalde, ikasleen behar eta ezagutzetara egokituak izan behar dira. Ikasketa-prozesu hori esanguratsua izateko, ezinbesteko bi ardatz daude: lehena, materiala esanguratsua izatea eta bigarrena, irakasleak prozesuarekiko jarrera positiboa izatea.

Ekoiztu beharreko helburu horiek anitzak izango dira, konpetentzia desberdinak lantze aldera (ahoz nahiz idatziz; bitarteko desberdinak erabiliz eta azken helburuetarako euskarri desberdinak erabiliz), baina beti ere, modu integratuan.

### **Ikasketa kooperatiboa**

Ikasten ari diren berdinen arteko interakzioa garrantzitsua da benetako ideien elkartrukea eta eztabaida sustatzeko; hau da, adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatzeko. Beraz, lan eta esfortzu indibidualaz gain, talde lana funtsezkoa da, gizabanakoak besteekin elkarri eragiten ikasten baitu.

Ikasketa kooperatiboa honako printzipioetan oinarritzen da:

- Elkardependentzia positiboa
- Aurrez aurreko interakzioa
- Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa
- Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa

Goikoetxea eta Pascualek (2002) diote teknika honek, lorpen kognitibo eta errendimendu akademikoa sustatzeaz gain, talde heterogeneoetan giza harremanak hobetzeko balio duela. Wiersemak (2000:99) ere, halaber, ikaskuntza-metodo honen erabilera onuragarria aipatzen du:

“Si las personas diferentes son capaces de aprender juntas en una misma clase aprenderán a ser mejores ciudadanos del mundo, ya que ese modo de aprender y trabajar enseña, no sólo a interactuar con personas que piensan diferente en un ámbito local, sino también en el global”.

Irakaslearen egitekoa ikaskuntza mota honetan ondokoan laburbiltzen da:

- Klaseko helburuak ezartzea
- Bere irizpideen arabera taldeak sortzea
- Taldeen lan-egutegia adierazi eta dinamizatzea
- Taldearen funtzionamenduaren eta aurrerapen indibidualen segimendua egitea, behar izanez gero funtzionamendu akatsak zuzentzeko esku hartuz
- Ikasleen errendimendua ebaluatzea eta baita taldearen lorpenen eta funtzionamenduaren autoebaluzio eta/edo koebaluzio prozesuan bideratzea

## 5. KAPITULUA

---

### Trebetasunak eta oinarrizko kompetentziak

---

#### Trebetasunak

Soziolinguistika lantzeko material didaktiko honen bidez, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bere osotasunean jorratzen da, ahozko eta idatzizko trebetasun hartzaileak zein sortzaileak lantzen direlako, hau da, entzumena, mintzamina, irakurmena eta idazmena (ikus 1. Taula):

	Trebetasun Hartzaileak	Trebetasun Sortzaileak
Ahozko komunikazioa	Entzumena	Mintzamina
Idatzizko komunikazioa	Irakurmena	Idazmena

1. Taula: Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia (Legarra, 2017)

Materialaren ezaugarriak direla eta, ezin uka daiteke ikasleek gehien landuko dituzten trebetasunak idatzizko komunikazioaren trebetasun hartzailea eta sortzailea izango direla, hau da, irakurmena eta idazmena. Ahozko komunikazioaren trebetasun hartzailea, entzumenari dagokiona eta trebetasun sortzailea, mintzamenari dagokiona, ere landuko dira honako jardura hauetan: ikaskideen iritziak jasotzean, iritziak ematerakoan, eztabaidatzean eta posterrak aurkeztean.

#### Oinarrizko kompetentziak

Hona hemen landuko diren oinarrizko kompetentziak (Eusko Jaurlaritza, 2015):

- *Hitzez eta hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.*

Hitzez eta hitzik gabe komunikatzeko konpetentzia lantzeari dagokionean, jarduera hauek aipa daitezke:

- Ariketak osatu eta eztabaidatzeko egin beharreko prestaketa lana
- Taldeko azalpen eta solasaldiak
- Egin beharreko jarduerak ahoz nahiz idatziz lantzea eta zuzentzea

Modu digitalean komunikatzeko konpetentzia lantzeari dagokionean, jarduera hauek aipa daitezke:

- Informazioa biltzea eta ariketak lantzea
- Bibliografia eta estekez baliatuz gomendatutako orriak kudeatzea

· *Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia*

- Proposatutako ariketak lantzerakoan eta berauek egiteko material didaktiko hau erabiltzerakoan
- Ahoz nahiz idatziz gaiari buruzko iritzi eta azalpenak ematerakoan

· *Elkarbizitzarako konpetentzia*

- Talde-eztabaida eta hausnarketa metodologia aplikatzerakoan
- Iritziak ematerakoan eta iritzi horien egokitasun-desegokitasunari buruzko besteen iritziak jasotzean
- Taldearen aurreko azalpenak prestatu eta zaintzean
- Gelakideekin informazioa eta argudioak erkatu eta eztabaidatzean
- Norberaren eskarmentu eta iritzietatik abiatuta, besteren tokian jartzeko garaian
- Norberaren eskarmentu eta iritzietatik abiatuta, perspektiba zabaltzeko jardueretan

· *Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia*

- Material didaktikoaren helburuak betetzea eskatzen duen prestakuntza lantzean
- Material didaktikoaren azken helburuak erdiesteko beharko dituzten irudimena, antolaketa-jarduna eta ekintzaren ebaluazioa gauzatzean
- Jarduerak gauzatzeko ezintasunei aurre egiteko estrategiak garatzeko orduan
- Norbere hausnarketen bidez gaien inguruko iritziak ematerakoan

Konpetentzia horietako bakoitzak ezaugarri propioak ditu, baina denek dute elkarrekiko harremana eta batera garatzen dira, ezinbestekoa baita bateratasunez eta bereizi gabe ikasten eta pentsatzen ikastea, gainerako pertsonekin bizitzea eta lankidetzan

jardutea, autonomia izatea eta norberaren kontzeptu eta estimu egokiak izatea, ekimena eta espiritu ekintzailea izatea eta komunikatzen jakitea.

## 6. KAPITULUA

---

### Euskarria eta denboraren egituraketa

---

#### Euskarria

*Material didaktikoa* eta ariketen osagarriak diren *Lan-koadernoak* euskarri digitalean aurkezten dira; eskuragarri daude

<http://editor.wix.com/html/editor/web/renderer/edit/c144c669-738d-43d8-a5b1-05494e869bf4?metaSiteId=c95cff5-c205-458b-b108-9281c27d2aaf&editorSessionId=5CA80516-9BE7-4B23-9B99-8D12CF2F4E89>

helbidean. Landu nahi den ariketari dagokion *Lan-koaderno*a deskargatu daiteke eta paperean edo, *Google Drive* aplikazioa erabiliz gero, sarean egin daiteke.

Materiala sortzeko *Wix* plataforma erabili da. Hau aukeratzeko erabili diren irizpide nagusiak bi izan dira: erabilerraza eta doakoa dela.

#### Denboraren egituraketa

Material hau lauhilabeteko batean hamabi sesiotan garatzeko eginda dago; sesio bakoitzak aurrekoa egin izana inplikatzeko du, lehenengoak izan ezik, jakina, eta jarraikortasunari dagokionez, ez du aldizkotasun finkoari jarraitu beharrik.

Sortu diren ariketei buruzko denboraren egituraketaren informazioa 2. taulan zehazten da:

Ariketak	Zeregina	Iraupena
<b>Soziolinguistikaren sorrera</b>	Soziolinguistika Klusterra eta <i>Bat: soziolinguistika aldizkariaren</i> inguruko informazioa biltzen duen 5 minutuko <i>podcasta</i> sortu.	15h

1. Ariketa		
<b>Soziolinguistika bariasionistara hurbilpena</b> 2. Ariketa	Soziolinguistika orokorra eta euskal soziolinguistika bariasionistari buruzko datu-base bibliografikoa sortu.	10h
<b>Hizkuntza-aldaketa</b> 3. Ariketa	Hizkuntza aldatzea eragiten duten barne-faktoreak eta kanpo-faktoreak (Labov 1994, 2001) zeintzuk diren azalduz taula osatu.	30'
	Ariketa zuzendu, iritziak azaldu eta eztabaidatu.	60'
<b>Bariazio sinkronikoa aztertzeko metodologiak</b> 4. Ariketa	Bariazio soziolinguistiko edo diastratikoaren metodologia atala irakurri eta informazioa laburbildu infografia batean.	15h
<b>Ikerketarako baliabide terminologiko eta teknologikoak</b> 5. Ariketa	Bariazio sinkronikoa aztertzeko erabiltzen diren baliabide terminologiko eta teknologikoen ekosistema ezagutzea eta termino baten 5 minutuko aurkezpen digitala prestatzea.	10h
<b>Nazioarte mailako zenbait lanen berri</b> 6. Ariketa	Labovek (1983) New Yorkeko biltegi handi batzuetan egindako /r/-ari buruzko ikerlana ezagutu.	60'
	New Yorkeko saltoki handietan /r/-aren estratifikazio soziala irudikatzen duen taula azaldu.	60'
<b>Euskal Herriko zenbait lanen berri</b> 7. Ariketa	Dima eta Goierri herrietako fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa biltzen dituen grafikako datuak interpretatu eta azaldu.	60'

<p><b>Euskal Herriko zenbait lanen berri</b></p> <p>8. Ariketa</p>	<p>Dima, Etxebarria, Bolibar, Otxandio, Aramaio, Beasain, Urretxu, Tolosa, Ataun, Luzaide eta Gizaburuagako datu-kopuruak ehunekoetan biltzen dituen taulako datuak interpretatu eta azaldu.</p>	<p>60'</p>
<p><b>Euskal Herriko zenbait lanen berri</b></p> <p>9. Ariketa</p>	<p>Gizaburuagako hizkeran euskara estandarraren eragina gazteengan eta helduengan biltzen duen grafikako datuak interpretatu eta azaldu.</p>	<p>60'</p>
<p><b>Euskal Herriko zenbait lanen berri</b></p> <p>10. Ariketa</p>	<p><i>Praat</i> programa erabilita, euskalkiko eta batuko azentua konparatu, deklinabideko kasuak, bai singularrean bai pluralean aztertu.</p>	<p>5h</p>
<p><b>Euskal Herriko zenbait lanen berri</b></p> <p>11. Ariketa</p>	<p>Bai/ez galderak egiteko erabiltzen diren marka morfologikoen mapako datuak interpretatu eta azaldu.</p>	<p>60'</p>
<p><b>Ikerlari izate bidean</b></p> <p>12. Ariketa</p>	<p>Ikerketa soziolinguistiko bat diseinatu, grabatu, transkribatu, datuak analizatu eta emaitzak interpretatu.</p>	<p>40h</p>
	<p>Posterra prestatu.</p>	<p>15h</p>
	<p>Posterra aurkeztu.</p>	<p>30'</p>

**2. Taula:** Ariketen denboraren egituraketa



# 7. KAPITULUA

---

## Materiala eta Ariketak

---

Material didaktikoa osatzen duten atalak eta prestatutako material eta ariketak, dagokien zeregina, helburua eta gutxieneko erantzunarekin hauek dira:

### Soziolinguistikaren sorrera

#### 1. ARIKETA

- Zeregina: Soziolinguistika Klusterra eta *Bat: soziolinguistika aldizkariaren* inguruko informazioa biltzen duen 5 minutuko *podcasta* sortzea.
- Helburua: Ezagutza soziolinguistikoaren ikerketan, zabalpenean eta aplikazioan lanean dabiltzan erakundeak eta aldizkariak ezagutzea.
- Gutxieneko erantzuna: <http://www.soziolinguistika.eus/>, <http://www.soziolinguistika.eus/bat>

### Soziolinguistika bariazionistara hurbilpena

#### 2. ARIKETA

- Zeregina: Soziolinguistika orokorra eta euskal soziolinguistika bariazionistari buruzko datu-base bibliografikoa sortzea.
- Helburua: bilaketa bibliografikoak egiten ikastea, aurkitutako informazioa kontrastatzen ikastea eta intereseko informazioa aukeratzen ikastea.
- Gutxieneko erantzuna: Labov 1963, 1966, 1994, 2001, 2010; Trudgill 1974, 2000; Tagliamonte 2006, 2012; Eckert 2000; Milroy 1992; Milroy 1980, 1999; Aurrekoetxea 2003, 2004, 2006, 2008, 2010; Ormaetxea 2008; Unamuno 2010, 2013; Ensunza 2014; Lujanbio 2012; Ariztimuño 2010; Santazilia 2009.

### Hizkuntza-aldaketa

#### 3. ARIKETA

- Zeregina: Hizkuntza aldatzea eragiten duten barne-faktoreak eta kanpo-faktoreak (Labov 1994, 2001) zeintzuk diren azaltzen duen taula osatzea.

- Helburua: Hizkuntza aldatzea eragiten duten barne-faktoreak eta kanpo-faktoreak (Labov 1994, 2001) zeintzuk diren ikastea.
- Gutxienerako erantzuna:
  - o Barne-faktoreak (aldagai dependentek)
    - Hizkuntza-aldaketa (chain shifting): Apparent time / Real time
    - Soinu biltzeak eta galtzeak (mergers eta splits)
    - Soinu-aldaketaren erregularitasuna
  - o Kanpo-faktoreak (aldagai independentek)
    - Klase soziala (maila soziokulturala)
    - Generoa
    - Adina
    - Bizilekuaren auzunea
    - Jatorria
    - Erlijioa
    - Arraza

## **Bariazio sinkronikoa aztertzeko metodologiak**

### 4. ARIKETA

- Zeregina: *Bariazio soziolinguistiko edo diastratikoaren metodologia* (Aurrekoetxea 2009) atala irakurri eta informazioa laburbildu infografia batean.
- Helburua: Interesekoa den informazioa aukeratzeko ikastea eta baita sintetizatzen ikastea ere, *Pictochart* aplikazioa ezagutu eta erabiltzen ikasteaz gain.
- Gutxienerako erantzuna: Infografiak informazio hau guztia laburbildu beharko luke:

### 3. Bariazio soziolinguistiko edo diastratikoaren metodologia

#### 3.1. Datu-bilketarako metodologia

##### 3.1.1. Behaketa kontrolatua

##### 3.1.2. Behaketa ez-kontrolatua

##### 3.1.3. Komunikabideen behaketa: ahozko artxiboen erabilera

#### 3.2. Datuen analisisa

##### 3.2.1. Metodologia kualitatiboa

##### 3.2.2. Metodologia kuantitatiboa

##### i. Euskararen kasuak

## Ikerketarako baliabide terminologiko eta teknologikoak

### 5. ARIKETA

- Zeregina: Bariazio sinkronikoa aztertzeke erabiltzen diren baliabide terminologiko eta teknologikoen ekosistema ezagutzeko termino baten 5 minutuko aurkezpen digitala prestatu.
- Helburua: Bariazio sinkronikoa aztertzeke erabiltzen diren baliabide terminologiko eta teknologikoak ezagutzea.
- Gutxieneke erantzuna:
  - *Audacity*: audio digitala lantzeko programa
  - *SPSS*: programa estatistiko informatikoa
  - *DiaTech*: hizkuntza bariazioa aztertzeke eta bisualizatzeko web aplikazioa
  - *Txi karratua*: proba estatistikoa
  - *Goldvard*: aldagai anitzeko analisis lantzeko aplikazioa
  - *Praat*: hizkeraren analisi fonetikoa aztertzeke programa
  - *Desbideraketa tipikoa*: batezbestekoaren erdia baino txikiagoa da
  - *ANOVA analisisa*: estatistikako kontzeptua
  - *Korrelazioa*: Estatistikan, korrelazioa bi aldagai koantitatiboen arteko erlazioaren norabideaz eta sendotasunaz aritzen da
  - *Izpien mapa*: mapa mota bat
  - *Mapa sintetikoa*: mapa mota bat
  - *Dendrograma*: errepresentazio grafiko mota bat
  - *Cluster analisisa*: aldagai anitzeko teknika pertsona-taldeak talde homogeneoetan sailkatzeko
  - *Isoglosa mapa*: mapa mota bat
  - *Levenshtein distantzia*: hitzen artean dagoen distantzia neurtzen du
  - *Lagina*: estatistikan, populazio batetik jasotako elementu multzo bat, ustez populazioaren adierazgarri dena
  - *Media*: zenbaki multzo baten batezbestekoa
  - *Moda*: datuen banaketa batean gehienetan agertzen den balioa
  - *Sinopsi mapa*: mapa mota bat

## Nazioarte mailako zenbait lanen berri

### 6. ARIKETA

- Zeregina: Labovek (1983) New Yorkeko biltegi handi batzuetan egindako /r/-ari buruzko estratifikazio soziala irudikatzen duen taula azaltzea.

- Helburua: Labovek (1983) New Yorkeko biltegi handi batzuetan egindako /r/-ari buruzko ikerlana ezagutzea eta estratifikazio soziala irudikatzen duen taula interpretatu eta azaltzea.
- Gutxieneko erantzuna: [https://is.muni.cz/el/1421/podzim2013/AJ22093/M\\_Farah - Labov s research.pdf](https://is.muni.cz/el/1421/podzim2013/AJ22093/M_Farah_Labov_s_research.pdf)

## **Euskal Herriko zenbait lanen berri**

### **7. ARIKETA**

- Zeregina: Dima eta Goierri herrietako fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa biltzen dituen grafikako datuak interpretatu eta azaltzea.
- Helburua: ikuspegi soziolinguistikoan oinarritutako ikerlana ezagutzea eta grafikak interpretatu eta azaltzea.
- Gutxieneko erantzuna: Gipuzkoako Goierriin %88an eusten diete bertako ezaugarriei helduek eta %74an gazteek. Esan liteke bertako hizkera eta estandarraren arteko bateratze-prozesua orekatua dela. Diman helduek ezin hobeto eusten badiete ere, gazteak jada lerratu dira estandarraren atzaparretan, %52an baino ez diete eusten eta herriko ezaugarriei. Hemen bertako hizkera eta estandarraren arteko bateratze-joera bizia da.

### **8. ARIKETA**

- Zeregina: Dima, Etxebarria, Bolibar, Otxandio, Aramaio, Beasain, Urretxu, Tolosa, Ataun, Luzaide eta Gizaburuagako datu-kopuruak ehunekoetan biltzen dituen taulako datuak interpretatu eta azaltzea.
- Helburua: ikuspegi soziolinguistikoan oinarritutako ikerlana ezagutzea eta taulako datuak interpretatu eta azaltzea.
- Gutxieneko erantzuna: Datuak orotara kontuan hartuta, bederatzi herriotan, Luzaiden (%16,9), Ataunen (% 21,1), Etxebarria eta Bolibarren (% 22), Tolosan (%22,8), Otxandion (% 23,2), Aramaion (% 23,2), Beasainen (% 26), Urretxun (% 24) eta Gizaburuagan (% 21,6), belaunaldi heldu eta gazteen artean gertatu den bariazioa gutxi gora-behera laurdena da. Aurrekoetxeak (2008) aztertutako Dimako hizkeran, aldiz, helduen eta gazteen arteko bariazioa handiagoa da (% 42), belaunaldi batean hizkuntza ia erdia aldatu dela adierazten baitu datu honek.

Gazteen eguneroko hizkeran euskara estandarraren eragina nabari da; helduek “oinarri dialektala”ri (Bellman, 1998) atxikimendu handiagoa diote; biengan, aldaketa ukalezina da lexikoan, izen-morfologian, aditz-morfologian zein sintaxian, hau da, hizkuntzaren arlo guztietan eta, azkenik, estandarizazio-

prozesua aurretik egin duten hizkuntzetan bezala ari da gertatzen euskararen ere, alegia, "oinarri dialektal"etik urrunduta estandarera hurbiltze prozesua ari da gertatzen.

## 9. ARIKETA

- Zeregina: Gizaburuagako hizkeran euskara estandarren eragina gazteengan eta helduengan biltzen duen grafikako datuak interpretatu eta azaltzea.
- Helburua: ikuspegi soziolinguistikoan oinarritutako ikerlana ezagutzea eta grafikako datuak interpretatu eta azaltzea.
- Gutxieneko erantzuna: estandarren eragina hiztun gazteengan eta helduengan arloka eta guztira; lexikoan % 5,88an kokatzen da gazteengan estandarren eragina, izen-morfologian % 8,70ean, aditz-morfologian % 5,13an eta sintaxian % 5ean. Parametro guztiak batera ezarriz % 5,97an kokatzen da euskara estandarren eragina gazteengan.

Estandarren eragina hiztun helduengan, aldiz, lexikoan % 3,36an kokatzen da, izen-morfologian eta aditz-morfologian ez dago estandarren eraginik eta sintaxian % 10ean. Parametro guztiak batera ezarrita, % 2,99an kokatzen da euskara estandarren eragina helduengan Gizaburuagako hizkeran. Estandarren eragin behinena lexikoan azaltzen dela uste bada ere, kasu hauetan ez da hori gertatzen; gazteei dagokienez, lexikoa bigarren postuan baitago izen-morfologiaren atzetik 1,98 puntuko aldearekin. Helduen kasuan ere, lexikoa bigarren postuan dago sintaxiaren atzetik 6,64 puntuko aldearekin.

## 10. ARIKETA

- Zeregina: *Praat* programa erabilia, euskalkiko eta batuko azentua konparatu, deklinabideko kasuak, bai singularrean bai pluralean aztertu.
- Helburua: azentua sailkatzeko irizpideak ezagutzea, norberaren euskalkiko azentua sailkatzeko gai izatea.

## 11. ARIKETA

- Zeregina: Bai/ez galderak egiteko erabiltzen diren marka morfologikoen mapako datuak interpretatu eta azaltzea.
- Helburua: mapa geolinguistikoa interpretatu eta azaltzea.
- Gutxieneko erantzuna: Bai/ez galderak egiteko hiru marka morfologiko desberdin ditugu: lehenengoa *a/* marka dugu, eta aditz nagusi eta laguntzailearen artean erantzen da (*zure laguna etorri al da?*); bigarrena *-a* atzizkia da, eta aditz laguntzaileari erantzen zaio (*zure laguna jinen dea?*);

hirugarrena, aldiz, zero marka da, ez dugu ezelako marka morfologikorik (*zure laguna etorri da?*).

Bai/ez galderak marka morfologiko gabe egiteko joera handia dagoela ikus daiteke mapako eremu horian. Erdigunean, eremu berdean, *a/* marka soilik erabiltzen dela baieztatu daiteke, eta ekialdeko zenbait herrialdetan, eremu urdinean, *-a* atzizkia erabiltzen da.

### **Ikerlari izate bidean**

#### 12. ARIKETA

- Zeregina: ikerketa soziolinguistiko bat diseinatu, grabatu, transkribatu, datuak analizatu eta emaitzak interpretatzea.
- Helburua: Ikerketa soziolinguistiko bat diseinatzen ikastea, datuak grabatzen eta ustatzen ikastea, suertatzen diren arazoei aurre egiten ikastea, poster zientifiko bat egiten ikastea eta jendaurrean lana aurkezten trebatzea.

## 8. KAPITULUA

### Ebaluazioa

Material honen ebaluazioa dela eta, *Moodle* plataforma medio, ikaskideek sortutako posterra berdinen arteko ebaluazioaren bidez baloratuko dute, beren-beregi horretarako prestatutako errubrika erabiliz.

Posterra egin izanak hiru puntu balioko ditu eta berdinen arteko ebaluazioak zazpi puntuko balioa izango du, hamar izanik lortu daitekeen kalifikazio gorena.

Berdinen arteko posterraren ebaluazioan, sortutako posterraren egitura, antolaketa, edukiak, irudiak eta ortografia baloratuko dira (ikus 3. Taula):

	<b>Hobetu behar da</b>	<b>Nahikoa</b>	<b>Ona</b>	<b>Bikaina</b>
<b>Egitura</b>	Atal bi baino gehiago falta dira	Bi atal falta dira	Atal bat falta da	Atal guztiak agertzen dira (sarrera, helburuak, metodologia, emaitzak eta eztabaida eta ondorioak)
<b>Antolaketa</b>	Informazioa ez dago ondo egituratuta eta formatua ez da erakargarria	Informazioa ondo egituratuta edo formatu erakargarria. Bi ezaugarrietatik bat betetzen du	Informazioa ondo egituratuta eta formatu erakargarria	Informazioa oso ondo egituratuta eta formatu erakargarria
<b>Edukiak</b>	Edukiak txarto hautatu dira, txarto antolatuta daude eta errepikatuta	Edukiak egokiak dira baina hobeto antolatu daitezke	Edukiak egokiak, ondo antolatuta daude eta ondo	Edukiak ondo aukeratu dira, ondo antolatuta daude eta ondo

			azalduta	azalduta
<b>Irudiak</b>	Kolorea txarto aukeratu da, testu gehiegi, irudiak, grafikak, etab. ondo ikusteko arazoak	Irudiak, grafikak, etab. ondo ikusten dira, baina ez da erakargarria	Irudiak, grafikak, etab. ondo aukeratu dira, testua orekatua da, ondo ikusten da	Irudiak, grafikak, etab. ondo aukeratu dira, testua orekatua da, gainera, ikusten dena oso erakargarria da
<b>Ortografia</b>	Akats ortografiko bi baino gehiago daude	Akats ortografiko bi daude	Akats ortografiko bat dago	Ez dago akats ortografikorik

### 3. Taula: Posterra ebaluatzeko errubrika

Posterraren ebaluazioa berdinen artean baloratuko da, ahozko aurkezpenak, aldiz, irakasleak ebaluatuko ditu horretarako espreski prestatutako errubrikan (ikus 4. Taula) oinarrituta:

	<b>Hobetu behar da</b>	<b>Nahikoa</b>	<b>Ona</b>	<b>Bikaina</b>
<b>Taldeko lana</b>	Taldekideen artean ez da elkarlanik egon eta lanean nabaritzen da	Kohesio falta dago, lana taldekideen artean banatu dute baina oso zaila da tokatu zaien zatiaz hitz egitea.	Lana taldekideen artean banatu dute baina azken entsegua den artean egin dute	Koordinazio eta komunikazio handia dago, guztiek tokatu zaien zatia ondo egin dute
<b>Edukiak</b>	Edukiak txarto hautatu dituzte, txarto antolatuta daude eta errepikatuta	Edukiak egokiak dira baina hobeto antolatu daitezke	Edukiak egokiak, ondo antolatuta daude eta ondo azalduta	Edukiak ondo aukeratu dituzte, ondo antolatuta daude eta ondo azalduta



<b>Irudiak</b>	Kolorea txarto aukeratu da, testu gehiegi, ikusteko arazoak	Aurkezpena ondo ikusten da, baina ez da erakargarria	Argazkiak ondo aukeratu dira, testua orekatua da, ondo ikusten da	Argazkiak ondo aukeratu dira, testua orekatua da, gainera, ikusten dena oso erakargarria da
<b>Ahozko aurkezpena (Denbora eta diapositibak)</b>	Testua falta da. Diapositibak nahasten dira	Aurkezpena egokia da baina denboretara egokitzeko arazoak	Aurkezpen egokia, denboretara ondo egokituta baina diapositiba gehiegi	Aurkezpen egokia, denboretara ondo egokituta eta diapositiba kopuru egokia
<b>Ahoskera</b>	Eten luzeegiak edo bat ere ez Erritmo desegokia Artikulazio arazo larriak Intonazio desegokia	Eten luzeak / laburrak Erritmo desegokia Artikulazio arazo batzuk (afrikatuak, frikariak, dardarkariak, sudurkariak...) Intonazio egokia	Eten egokiak Erritmo egokia Artikulazio arazo batzuk (aditz bukaera eta ondorengo txistukaria) Intonazio egokia	Eten egokiak Erritmo egokia Artikulazio-arazorik ez Intonazio egokia
<b>Komunikazio ez-berbala</b>	Zutik daude, tente, zurrun	Mugitzen dira baina mugimenduak oso bortitzak dira	Keinuren bat edo beste egiten dute, aurpegikera moldatzen dute baina serioegi daude, urduritasuna nabaritzen zaie	Gorpuzkerak, aurpegikerak eta keinuek diskurtsoari indarra ematen diote

**4. Taula:** Ahozko aurkezpena ebaluatzeko errubrika

## 9. KAPITULUA

---

### Ondorioak

---

Hezkuntzari dagokionez, soziolinguistika lantzeko materialen beharria nabaria da irakaskuntza maila guztietan. Sortutako material hau beren-beregi unibertsitate-ikasketetarako pentsatuta dago, batez ere baina ez eskusiboki, soziologiakoentzat, hizkuntzalaritzakoentzat eta irakasle eskoletako ikasleentzat.

Gizarteari dagokionez, alor horietako ikasleak soziolinguistikaren oinarrietan prestatuta egotearen garrantzia aipatuko nuke, euren jardun profesionalerako ekar diezaikeen kalitatea eta onuragatik; hain zuzen ere, norbanakoaren ezagutza, soziologoarena, hizkuntzalariarena edo irakaslearena, langilearengan geratu barik, bere jardunaren bidez, gizarteratu egiten da; iritzi zientifiko oinarrituetatik abiatuta, gizartean proposamen eraginkor eta funtsezkoak egiteko prestatutako profesionalak izatean.

Hiztunari dagokionez, hizkuntza-aldaketa ikuspuntu baikorretik analizatzeko baliabidea eskura dakieke ikasleei; hizkuntza-aldaketa kausa sozial jakinen (adina, generoa, maila soziokulturala, etab.) eraginaren ondorio gisa interpretatzeko baliabidea, alegia. Hiztunengan jarri ohi den erantzukizuna (kalitate baxuko hizkera erabiltzearen ideia inputatzea edo *switchinga* egitea, etab.), sarritan hiztunak zama moduan hautematen duen erantzukizuna arintzeko baliagarri litzateke material hau lantzea.

Unitate didaktiko honek norbanakoaren perspektiba zabaltzeko jarduerak proposatzen ditu eta horiek landuz, norbanakoaren prestakuntza bideratzen du, norberaren errealitate linguistikoa neurri objektiboetan ezagutzeko eta hausnartzeko bidea zabalduz.

---

## Bibliografia

---

- Ariztimuño, B. (2010) Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia joerak. *Uztaro*, 72, 79-96.
- Aurrekoetxea, G. (2003). Euskalkiak estandarren uholdepean (Arratiako kasua). In *Ahozkoatasuna aztergai*, 167-185. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Aurrekoetxea, G. (2004). Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikusuntu teorikotik begirada bat). *Uztaro*, 50, 45-57. Gehitu
- Aurrekoetxea, G. (2006). Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze-joerak. In J. Lakarra, eta J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask*, ASJU XL, 133-160.
- Aurrekoetxea, G. (2008). Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskararen. *Euskalingua*, 12, 17-26.
- Aurrekoetxea, G. (2010). Sociolinguistic and Geolinguistic Variation in the Basque language. *Slavia Centralis*, 1, 88-100.
- Bellmann, G. (1998). Between Base Dialect and Standard Language. *Folia Lingüística*, XXXII/1-2, 23-34.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1997). Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. *Textos de didáctica de la lengua y literatura*, 11, 77-98.
- Eckert, P. (2000). *Linguistic Variation as Social Practice*. Oxford: Blackwell.
- Ensunza, A. (2014). Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 90, 123-149.
- Eusko Jaurlaritza. (2015). 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. [Euskal Herriko Aqintaritzaren Aldizkaria](#). Argitaratze data: 2016-01-15, 9. zk.
- Fasold, R. (1969). *A sociolinguistic study of the pronunciation of three vowels in Detroit speech*. Georgetown University mimeograph.
- Goikoetxea, E., Pascual, G., (2002): "Aprendizaje cooperativo: bases teóricas y hallazgos empíricos que explican su eficacia", *Educación XXI* (5), 227-247.
- Kagan, S. (1999). *Cooperative Learning*. San Clemente: Resources for Teachers, Inc

- Labov, W. (1963). The social motivation of a sound change, *Word*, 19, 273-309.
- . (1966). *The social Stratification of English in New York City*, Washington, D.C.: Center for Applied Linguistics.
- . (1994). *Principles of Linguistic change. Volume 1: Internal factors*, [Berrarg. [2010], Oxford: Blackwell.]
- . (2001). *Principles of Linguistic change. Volume 2: Social factors*, [Berrarg. [2010], Oxford: Blackwell.]
- . (2010). *Principles of Linguistic change. Volume 3: Cognitive and Cultural factors*, Oxford: Blackwell.
- Larringan, L.M & Idiazabal, I. (2012). Sekuentzia Didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria. *Ikastaria*, 18, 13-44.
- Legarra, H. (2017). [Hizkuntzen i\(ra\)kaskuntza. Marko teoriko orokorra](#). Eibar: UEU.
- Lujanbio, O. (2012). Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran. *Uztaro*, 80, 77-97.
- Milroy, J. (1992). *Linguistic Variation & Change*, Oxford: Blackwell.
- Milroy, L. (1980) *Language and Social Networks*. Oxford: Basil Blackwell.
- . 1999. *Language ideologies and linguistic change: towards an interpretation*. Oxford: Blackwell.
- Ormaetxea, J. L. (2008). Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa. *FLV*, 108, 249-262.
- Sankoff, G. (1988). Sociolinguistics and syntactic variation, in F.J. Newmeyer (arg.), *Linguistics: The Cambridge Survey*. Cambridge: Cambridge University Press, 140-161.
- Santazilia, E. (2009). Luzaideko hizkuntz bariazioa. *FLV*, 111, 219-248.
- Tagliamonte, S. A. (2006). *Analysing sociolinguistic variation*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Tagliamonte, S. A. (2012). *Variationist sociolinguistics: change, observation, interpretation*. Malden, MA: Wiley-Blackwell.
- Trudgill, P. (1974). *The Social Differentiation of English in Norwich*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Trudgill, P. (2000). *Sociolinguistics: An introduction to Language and Society*. Penguin Group.
- Unamuno, L. (2010). Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran. *Euskalingua*, 16, 41-48.
- Unamuno, L. & Aurrekoetxea, G. (2013). Dialect levelling in the Basque Country. In N. S. Roberts & C. Childs (arg.), *Newcastle Working Papers in Linguistics*, 19, (1), 152-167.

Wiersema, N. (2000): *How does Collaborative Learning actually work in a classroom and how do students react to it? A Brief Reflection*. London Guildhall University.

<http://www.soziolinguistika.eus>

<http://www.soziolinguistika.eus/bat>

<https://is.muni.cz/el/1421/podzim2013/AJ22093/M - Farah - Labov s research.pdf>